
BERGARAKO UDALA

BETE GABE DAUDEN 11 LANPOSTU BETETZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOAREN OINARRIAK.

Bergarako Udalaren laboralen plantillan hutsik dauden hamaika garbitzaile lanpostu betetzeko lehiaketa-oposizioa arautuko duten oinarriak.

1. DEIALDIAREN XEDEA.

Oinarri hauen xedea Bergarako udalaren langile laboralen plantillan hutsik dauden **11 garbitzaile lanpostu** lehiaketa-oposizio libre bidez betetzeko deialdia arautzea da. Honako hauek dira lanpostuak, duten dedikazioa (aldi baterakoa da deialdia bukatu baino lehen berraztertuko dira), eta udalak onartuta duen lanpostuen zerrendan duten kodea:

- **Zabalotegi aretoa : % 12ko dedikazioa eta 10.24.17 kodea duen lanpostua**
- **San Martin eskola eta Osintxuko eskola eta aldagelak: (egunean 6 ordu) % 72ko dedikazioa, egun 10.24.09 kodea eta 10.24.11 kodea duten lanpostuak bat eginez**
- **San Martin: % 65eko dedikazioa (egunean 5,5 ordu) eta 10.24.10 kodea duen lanpostua (urritik aurrera)**
- **Agorrosin: 4 langile % 72ko dedikazioarekin eta 5,5 ordutan (gauetan) eta 07.07.03, 07.07.04, 07.07.05 eta 07.07.06 kodea duten lanpostuak**
- **Oxirondo azoka, Irala kaleko WC-ak eta BUS geltokiko WC-ak: egunero 2 langile % 60ko dedikazioarekin eta 10.24.14 eta 10.24.15 kodea duten lanpostuak.**
- **Agorrosingo kanpoko igerilekuen garbiketa: 2 langile. Kontratu hauek aldizkako finakoak dira (“fijo-discontinuo”), eta urtero ekainaren 10etik irailaren 15era arteko iraupena izango dute, egunean 4 orduko lan-jardunarekin. 07.07.08 eta 07.07.09 kodea duten lanpostuak dira.**

Lanpostuek 1. hizkuntza eskakizuna dute, ez derrigorrezkoa.

Lanpostu horietako bi ezinduei gordetakoak dira: **10.24.14 kodea eta 10.24.17 kodea duten lanpostuak.**

Dedikazioak zerbitzuen premien arabera moldatuko dira, eta udalak dituen beste premia batzuei erantzuteko gora egin ahal izango dute. Egutegia eta ordutegia Udalak urtero ezarriko duena izango da kasu guztietan.

4 lanpostu Agorrosingo kirol-eremuan egunero garbiketa-lanak egiteko dira, eta ordutegia **zerbitzuaren premia eta beharren arabera antolatuko da. Hasiera batean**, eta udalak kontrakoa erabakitzen ez duen bitartean, gaueko ordutegia izango dute, betiere lanpostuen izaera eta premia bereziei erantzunez.

Lanposturik lortu gabe oposaketako azterketak gainditzten dituzten izangaien zerrenda lanpostu berdinetan edo antzekotan iraunkorrek ez diren langile-beharrak betetzeko erabili ahal izango da.

Hauek dira deialdi honen xedeko lanpostuetan bete beharreko funtzioak eta dituzten beste hainbat xehetasun:

- Egunero dagozkien eraikuntzen garbiketak egitea, dagozkien eraikuntzetan instalazioa bera, barruko altzariak, eta elementu guztiak, kasu bakoitzean horretarako emandako tresneria eta garbiketarako aginduak jarraituko dituztelarik.
- Agorrosingo garbitzaileek garbiketa orokorra egiten den astean urteko opor egun batzuk izango dituzte wgun horietan, batean talde batek eta bestean beste taldeak, txandaka
- Eskolen kasuan, Aste Santuan, Gabonetako oporretan eta abuztuaren amaieratik eta irailaren hasieran, emandako lan-egutegiaren arabera garbiketa orokorrak egingo dituzte.

- Agorrosingo kanpoko eremuaren garbitzaileen kasuan, beste garbitzaileen opor-egun, lizentzia eta bajak betetzeko aukera izango dute, momentu bakoitzean bere dedikazioa, kotizazioen eraginetara, egokituko zaielarik.

2. IZANGAIEN BALDINTZAK

Lehiaketa-oposizioan onartua izan eta parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1. Onartuak izateko eta, hala badagokie, neurketan parte hartzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:
 - a) Europar Batasuneko kide diren estatuetakoren baten herritartasuna izatea edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.
 - b) Parte hartu ahal izango du, era berean, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak ere , baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Era berean, parte hartu ahal izango dute Espainiako estatuan bizi eta aurreko paragrafoetan sartu gabe daude atzerritarrek. Hauek aukeratuak izango balira, kontratuaren objektu den jarduera burutzeko administrazioaren baimena dutela probatu beharko dute, aipatutako kontratua egin baino lehen.
 - c) 16 urte beteta izatea.
 - d) Eskolaratze ziurtagiria edo parekoa den titulazio edo titulua eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Titulazioak atzerrikoak badira, haien homologazioaren egiaztagiria eduki beharko da.
 - e) San Martin eta Osintxuko garbiketari dagokionean gida-baimena izatea premiazkoa izango da
 - f) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
 - g) Diziplinazko prozeduraren bidez Administrazio Publikoetako erakundeen zerbitzutik bereizitakoa ez izatea, eta administrazio publikoan jarduteko gaitasunaz gabeturik ez egotea.
 - h) 1. Hizkuntza Eskakizuna, ez derrigorrezkoa.
2. Ezinduentzat gordetako modalitatean parte hartzeko baldintza espezifikoak.

Ezinduentzat gordetako plazen lehian sartu ahal izateko, goiko 1 zenbakian aipatzen diren baldintzak betetzeaz gain, beste hauek ere bete beharko dira:

- a) Eskabideak aurkezteko epea bukatzeko egunean foru-aldundietako organo eskudunek edo INSERSOK % 33ko edo hortik gorako elbarritasuna aitortua izatea.
- b) Ezintasuna bera eta ezintasunaren eta lanpostuko zereginak betetzeko gaitasunaren arteko bateragarritasuna egiaztatzea. Zinpeko aitopenarekin aurkeztu ahal izango dira eta enpresak egindako ikuskapenean ziurtatuko da bateragarritasuna.

3. ESKABIDEAK

Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredua Bergarako Udaleko Erregistroaren Bulegoan emango dute, eta oinarri hauei erantsirik doa.

Lehiaketa-oposizioan parte hartzeko eskabideak Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta ondoko baldintza hauek bete beharko dira atzera bota ez izateko:

a) Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza bakoitza eta guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunari dagozkiola.

b) Eskabidearekin batera, ondoko agiriok erantsiko dituzte:

- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Deialdian parte hartzeko eskatutako tituluaren fotokopia.
- Hala badagokio, eskatutako hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko tituluen edota egiaztagirien fotokopia.
- Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, lehiaketaren fasean baloratuak izateko.

Laneko esperientzia egiaztatu beharko da lan egindako Enpresek edo Administrazioek egindako ziurtagirien bidez, bertan kontratuaren iraupena eta lanaren eginkizunak zehaztuz. Esparru pribatuko esperientzia egiaztatzeko, gainera, Gizarte Segurantzak luzatutako "laneko bizitza" edo kotizatu izanaren ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

Eskabidean Bergarako Udalean egindako zerbitzuak eta laneko esperientzia adierazi baditu, ez da agiri bidez egiaztatu beharrik izango, eta izangai bakoitzaren espedientean azaltzen diren datuen arabera baloratuko dira.

Prestakuntza osagarriari buruzko merezimendua egiaztatzeko aurkeztuko duen agirian, haren iraupena zehaztu beharko du. Horrela egin ezean, Epaimahaiaren esku geratuko da merezimendu hori baloratzea ala ez.

c) Instantzian adierazten diren merituen zerrendatu eta zenbatu egingo dira eta instantziarekin zenbaki bakoitzari dago(z)kion agiria(k) lagunduko d(it)u ZENBATUTA ere. Merituen agiriek eramango duten zenbakia egiaztatzen duten merituen zenbaki berdina izango da eta agiri bakoitzak beheko aldean eskuinean eskuz idatzita eta izangaiaren sinadurarekin joango da. Agiri denak josita entregatuko dira eta instantziari lagunduko diote.

d) Izangaiek eskabideetan adierazi beharko dute oposizio-aldiko ariketak Erkidego Autonomoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten.

e) Instantzian bertan ere adieraziko da ezinduei gordetako modalitatean parte hartu nahi duen.

Eskabideak, behar bezala beteta, Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dituzte, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta hurrengo 20 laneguneko epearen barruan.

Eskabideak, era berean, 30/1992 Legearen (*azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen*) 38.4 artikuluan adierazitako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu ahal dira. Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakariari zuzenduko zaizkio, eta, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagokion funtzionarioak data eta zigilua jarrita eduki beharko dute. Izan ditzaketen egitatezko akatsak, edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak eskatuta.

4. IZANGAIK ONARTZEA.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkate-Udalburuak onartu eta baztertutako izangaien behin behineko zerrenda eta Epaimahai kalifikatzailearen kide titular eta ordezkoen zerrenda onartuko du. Bi zerrenda horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta udaletxeko iragarki taulan erakutsiko dira; 10 egun naturaleko epea emango da erreklamazioak egiteko, azaroaren 26ko 30/1992 Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 71. artikulua xedatutakoari jarraiki.

Behin-behineko zerrenda besterik gabe behin betikotzat joko da erreklamaziorik egiten ez bada. Erreklamazioak eginez gero, adierazitako eran argitaratuko den beste ebazpen batean onartuak edo baztertuak jasoko dira eta bertan behin betiko zerrenda ere onartuko da.

Azken ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzien errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko auzietako salaren aurrean, onartuen eta baztertuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko epean. Hori, ordea, ez da eragozpen izango, inork bidezkotzat jotzen badu, beste edozein errekurtsu aurkezteko. Aldez aurretik eta nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean.

5. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

5.1. Osaera: Deituriko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta Alkate-Lehendakariak erabakiko duen kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko ordezkari batek eta langileen ordezkariak izendatutako batek hartuko dute parte epaimahaietan. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udalan presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

5.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiak izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

5.3. Abstentzia eta errefusatea. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

5.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

5.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

5.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude. Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiak hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere lanpostua beteko dela ziurtatzeko xedez, hautatutako izangaiak behin betiko kontratua sinatu baino lehenago uko egiten badu, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

d) Izangai batek ere gaudituko ez balitu baztertzailerak diren proba guztiak, lanpostua bete gabe geratuko da.

Ariketak epaituko dituen Epaimahaiak kide titularrez eta ordezkoez osaturik egongo da, eta horien izendapena argitara emango da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan.

6. OPOSIZIOAREN ANTOLAMENDUA

Epaimahai kalifikatzaileak erabaki dezake probak beste ordena batean egitea (zazpigarren oinarrian jasotzen dena bete gabe) eta baita zenbait proba egun berean egitea ere. Kasu horretan, aurreko proba gauditutu dutenei bakarrik neurtuko die egindako proba.

Hautagaiak, Epaimahaiak egindako deialdiari erantzuten ez badio, hau da, esandako leku, ordu eta egunean agertzen ez bada, ezinbesteko kasua izanik ere, hautaprobetatik kanpo geratuko da behin-betiko.

Baztertzailerak den ariketa bakoitza bukatzean, Epaimahaiaren erabakiz, oharren taulan eta Udaleko web orrialdean argitaratuko da gauditutu dutenen zerrenda.

7. OPOSIZIOA.

Oposizio bidezko hautatze sistemak hiru proba hauek dauzka:

1. Proba : Derrigorrezkoa eta baztertzailerak da.

I Eranskina izenekoa jasotako gaiekin lotutako galdera teorikoak. Gehienez 15 puntu emango dira, eta baztertu egingo dira gutxienez 7,5 puntu lortzen ez dutenak. Epaimahaiak erabakiko du proba hori nola egin (test erako galdeketa, landu beharreko gaia edo gaiak, eta abar) eta baita gaizki erantzundako galderak zigortuko diren, eta zigortuz gero, zer zigor jarriko den ere.

2. Proba: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak da.

Epaimahaiak erabakitako garbiketa saio bat edo/eta lanpostuaren eginkizunekin zerikusia du(t)en ariketa praktikoa(k) egitea.

Gehienez 30 puntu emango dira eta baztertuta geratuko dira gutxienez 15 puntu ateratzen ez dutenak.

8. OPOSIZIOKO ARIKETEN GARAPENA.

1. Lehen ariketarako deia Udalburuaren erabakiaren bitartez zehaztuko da (behin-behineko onartuak eta baztertuak nor diren zehazten den erabakian bertan) eta GAO-n eta Bergarako Udaleko iragarki taulan jarriko da. Erabaki horretan bertan azterketa egiteko eguna, ordua eta lekua adieraziko dira. Hurrengo ariketen iragarpena Udaleko Oharren Taulan eta web orrialdean egingo da.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da. Epaimahaiak ariketak egiteko jarritako egunean, lekuan eta orduan agertzen ez diren izangaiak -baita ezinbesteko arrazoiengatik bada ere- hautaprosesutik kanpo geratuko dira erabat.

2. Beren nortasunaren berri ematen duen agiriren bat aurkeztu beharko dute hautagaiak probetara (NAN, pasaportea edo gidatzeko baimena). Epaimahaiak edozein unetan eska dezake agiria erakusteko. Agiri hori erakusten ez bada, zuzenean kanporatuko da hautagaia probetatik.

3. Ariketa baztertzaille bakoitza amaitu ondoren, eta Epaimahaiaren erabakiari jarraituz, gainditutakoaren zerrenda argitaratuko da Bergarako Udaleko iragarki-taulan eta bakoitzak zenbat puntu atera dituen adieraziko da.

9. LEHIAKETA FASEKO MERITUAK.

Epaimahaiak ondoko merezimendu hauek balioztatuko ditu, baldin eta, laugarren oinarriko b) atalean xedatutakoaren arabera, eskabidean adieraziak eta agiri bidez egiaztatuak izan badira, eta, beti ere, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna kontuan hartuz:

—Garbitzaile lanetan Bergarako udalean egindako lana: Gehienez ere 15 puntu arte, hileko 0,50 puntu.

—Garbitzaile lanetan egindako beste lana, beti ere beste inoren kontura eta kontratuarekin izan denean: Gehienez ere 4 puntu arte, hileko 0,15 puntu.

Merezimendu horiek, Enpresa-ziurtagirien edo zerbitzuak bete diren Administrazioak luzatutako agirien bitartez eta gizarte segurantzak luzatutako laneko bizitzaren agiriarekin lagunduz egiaztatu beharko dira. Egiaztagirietan betetako funtzioak zehaztu beharko dira.

— Lehen hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila izatea: 5 puntu.

Ezaguera hau egiaztatu ahal izango da Epaimahaiak proposaturiko idatzizko eta ahozko proben bitartez. "Gai" edo "ez-gai" kalifikatuko da.

Ez dute froga hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 1. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

10. LEHIAKETA-OPOSIZIOKO AZKEN KALIFIKAZIOA.

1. Lehiaketa-oposizioaren azken sailkapena bi fasetan lortutako puntuen batuketaren arabera egingo da, izangaien lehentasun-ordena zehaztuko duena, alegia.
2. Ariketen kalifikazioa eta merituen balorazioa amaitu ondoren, Epaimahaiak onartutako izangaien izenak emango ditu argitara, azken puntuazioaren ordenaren arabera. Azken puntuazio hori oposizioan eta lehiaketan ateratako puntuen batura izango da.
3. Puntuazioan berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek erabiliko dira, emandako hurrenkeran:
 - a) Puntuazio altuena udalean egindako lanen atalean.
 - b) Puntuazio altuena ezagutza praktikoari dagokion proban.
4. Probak eta meritua kalifikatzeko lana amaitzen denean, Epaimahaiak onartu egingo du hautatutako izangaien zerrenda. Gainerako izangaiek, hautaprobak gainditutakoek, Lan Poltsa osatuko dute.
5. Lanpostuak aukeratzea.

Gaindituen azken kalifikazioen behin betiko zerrendakoek puntuazioaren arabera lehentasun-hurrenkeran zein kontratu nahi duten adierazteko, 10 egun balioduneko epea ezarriko da .

Baldintza espezifikoak ezarrita dituzten lanpostuak eskatzen dituztenek baldintza horiek betetzen dituztela justifikatu beharko dute lanpostua aukeratzeko unean, ziurtagiriaren fotokopia soilaren bidez. Horrelako lanpostuak lortzen dituztenek originala edo fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute instantziarekin batera.
6. Lanpostuak esleitzea.

Txanda bakoitzeko eskainitako lanpostuen zerrenda bakar bana egingo da, prozesuan lortutako puntuazio handienetik txikienerako hurrenkerarekin. Zerrenda horietan sartuko dira ezinduentzat gordetako modalitateko parte-hartzaileak ere. Zerrenda bakoitzeko hurrenkera erabakigarria izango da lanpostuak esleitzeko.

Ezinduentzat gordetako modalitateko plazak agortu ondoren kupo horretan oraindik parte-hartzailerik egonez gero, pertsona horiek sarbide orokorreko plazak eskuratu ahal izango dituzte prozesuan lortutako puntuen hurrenkerari jarraituz.

Oinarri honek zehaztutako epean eta moduan lanpostua aukeratzen ez duten hautagaiek galdu egingo dituzte hautaketa-prozesuan parte hartzearen ondorioz lortutako eskubideak.

7. Aukeratutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

Lanpostuak aukeratzeko epea bukatuta, aukeratutakoen eta esleituko diren lanpostuen behin-behineko zerrenda egingo da, eskatutako betekizunak bete izanaren, hautagai bakoitzaren puntuazioaren eta adierazitako lehentasunen arabera. Zerrenda hori udaleko iragarki taulan eta udaleko WEB orrian argitaratuko da, ebazpen baten bidez, eta 10 egun balioduneko epea irekiko da erreklamazioak aurkezteko.

8. Epaimahai Kalifikatzaileak Bergarako Udaleko Iragarki Taulan eta web orrialdean argitaratuko ditu aipatutako zerrendak, eta Alkateari aurkeztuko dizkio, hautatuak kontratatzeke proposamenarekin batera

11. DEIALDIKO BETEBEHARRAK KREDITATZEA.

1. Onartu eta kontrataziorako proposatutako izangaiek lehiaketa-oposizioan parte hartzeko 5. oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte aipatutako argitalpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean.

2. Aipatutako epean, eta ezinbesteko arrazoirik ez bada, izangaiek dokumentazio hori aurkezten ez badute edo eskatutako baldintzak egiaztatzen ez badituzte, kontratatzeke eskubide guztiak galduko dituzte eta baliorik gabe geratuko dira haien ekintza guztiak, hasierako eskaeran egindako faltsutasunagatik izan dezakeen erantzukizunaren kalterik gabe. Kasu horretan, organo eskudunak izendapen-proposamen berria egingo du ariketa baztertzailerak gainditu dituztenen artetik eta zerrendan azken puntuazio-hurrenkeran hurrengoak agertzen direnen alde, deitutako lanpostu-kopurua bete arte.

12.- KONTRATAZIOA-PRAKTIKALDIA

Alkate-udalburuak epaimahaiak proposaturiko izangaiei, puntuazioaren hurrenkeran bakoitzak aukeratutako lanposturako, kontratu finkoa egingo die, legeak aurreikusitako frogaldia izango dutelarik, hau da bi hilabetekoa.

Frogaldi honek hautaketa prozesuaren atal baten izaera izango du eta azken balorazioa gai/ez-gai izango da; udal Iragarki Taulan argitaratuko da.

Epe hori amaitu aurretik, dagokion arduradunak langileak egindako lanari buruzko txostena egingo du, eta erakutsi dituen gaitasunak hartuko ditu kontuan txosten horretan:

- lanerako ahalmena eta errendimendu profesionala, erantzukizunaren eta eraginkortasunaren zentzua, lanerako prestasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa.
- lan-taldera moldatzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Behin behineko ezgaitasun egoerak, amatasunak, aitasun lizentziak eta adopzioa edo harreran hartzeak frogaldian emango balira honen zenbaketa eteten du

Behin betiko kontratua egin aurretik enpresa-medikuaren ikuskapena pasatu beharko du, bere osasun egoera ona dela eta lanpostuaren eginkizunak betetzeko gai dela egiaztatzeke.

13. LAN-POLTSA

Lanpostua eskuratu ez, baina oposizioa gainditzen duten hautagaiekin udal eraikuntzen garbitzaileen lan-poltsa osatuko da.

Lan-poltsak **2012ko urtarrilaren 1etik** kontatzen hasita urtebeteko balioa izango du, urtez urte eta gehienez ere beste lau urtez luzatu ahal izango delarik, Gobernazio eta Zerbitzuen Batzordearen proposamenari jarraituz, Alkate-Lehendakariak kontrako erabakiko ez balu.

Lan poltsaren funtzionamendua Udalak 2006ko apirilaren 4an Alkatearen dekretu bidez onartua duen lan poltsen erabilerarako barne araudiak jasotzen duena izango da (eranskin gisara dago jasota).

14.- DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko direnek eta lan-poltsarako izendatuko direnek izan ezik.

Hautaketa prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

15.- PROZESUAREN ARGITALPENAK.-

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira(www.bergara.net).

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea; horretarako eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

16. GORABEHERAK

Epaimahai kalifikatzailea eskuetsirik dago sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren jarduera ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta aplikazio osagarriko legedian xedatu ez diren kasuetarako.

17. INPUGNAZIOA.

Interesdunek oinarri hauen aurka egin dezakete –inpugnatu–, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epe eta moduan.

I ERANSKINA

1. GAIA. Lantokietan izan beharreko gutxieneko segurtasun-baldintzak.

2. GAIA. Norbera babesteko ekipamenduak

3. GAIA. Garbiketa-zerbitzuaren antolaketa eta kontrola. Lan-taldeak. Garbitzaileen eginkizunak.

- Garbiketa-zerbitzuaren antolaketa eta kontrola
- Lan-taldea
- Garbitzaileen eginkizunak

4. GAIA. Garbigarriak. Produktuen etiketetan agertzen diren ikurrek zer esan nahi duten. Agente kimikoak: definizioak eta prebentzioa. Erabiltzailearentzako informazioa, lanean osasuna eta segurtasuna babestu ahal izan ditzan.

Garbigarriak

- Produktuen etiketetan agertzen diren ikurrek zer esan nahi duten.
- Agente kimikoak: definizioak eta prebentzioa.
- Erabiltzailearentzako informazioa, lanean osasuna eta segurtasuna babestu ahal izan ditzan.
- Zer egin istripurik izanez gero

5. GAIA. Garbitzeko tresnak eta makinak

6. GAIA. Bide publikoak garbitzeko lanbidean erabiltzen diren makinak, tresnak eta erremintak

7. GAIA. Garbiketa-guneak.

- Gelak nola garbitu
- Garbiketa-guneak
- Gelak nola garbitu

8. GAIA. Sukaldeak eta jangelak nola garbitu. Sukaldeetako makinak, osagarriak eta tresneria. Baldintza higienikoak

- Sukaldeak eta jangelak nola garbitu
- Sukaldeetako makinak, osagarriak eta tresneria.
- Baldintza higienikoak

9. GAIA. Bainugela nola garbitu. Desinfekzioa eta ambientazioa. Aipamen berezia egingo da komun publikoen garbiketari buruz.

- Bainugela nola garbitu.
- Desinfekzioa eta ambientazioa.
- Aipamen berezia egingo da komun publikoen garbiketari buruz.

10. GAIA. Leihoak eta kristalak nola garbitu. Sabaiak eta hormak nola garbitu.

Lurzoruak nola garbitu

- Leihoak eta kristalak nola garbitu
- Sabaiak eta hormak nola garbitu.
- Lurzoruak nola garbitu

11. GAIA. Altzariak nola garbitu: garbitzeko teknikak. Garbiketaren beste alderdi batzuk: landareak eta loreak nola zaindu eta mantendu

- Altzariak nola garbitu: garbitzeko teknikak.
- Garbiketaren beste alderdi batzuk: landareak eta loreak nola zaindu eta mantendu

12. GAIA: Zentro publikoak nola garbitu. Gune administratiboak nola garbitu.

- Zentro publikoak nola garbitu
- Gune administratiboak nola garbitu.

13. GAIA. Nola garbitu lokal hezeak, aldagelak, gimnasioak eta igerilekuak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak

- Nola garbitu lokal hezeak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak
- Nola garbitu aldagelak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak
- Nola garbitu gimnasioak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak
- Nola garbitu igerilekuak. Ezaugarriak, baliabideak eta erabilera-arauak

14. GAIA. Nola garbitu ospitalean. Gelen sailkapena. Jarduketak

- Nola garbitu ospitalean
- Gelen sailkapena
- Jarduketak

15. GAIA. Garbiketaren alderdi ekologikoak. Birziklatzea. Hondakinak biltzeari buruzko nozio orokorrak

- Garbiketaren alderdi ekologikoak. Birziklatzea
- Hondakinak biltzeari buruzko nozio orokorrak

16. gaia: Agorrosingo kiroldegiko garbiketa.

- ❖ Garbiketa industrialia. Tresneria eta lanabesak.
- ❖ Kiroldegiko garbigarriak.
- ❖ Garbiketa laneko segurtasuna eta osasuna.
- ❖ Aldagela bateko garbiketa protokoloa.

GOMENDIOA:

*Editorial CEPeko 2010eko edizioa duen "Temario oposiciones manual limpiador-a de centros formación para el empleo" manuala .

*Agorrosingo garbiketa protokoloak.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

BASES DEL CONCURSO-OPOSICIÓN PARA LA PROVISIÓN DE 11 PLAZAS DE LIMPIADOR/A VACANTES

Bases que regirán el concurso-oposición para la provisión de once plazas de limpiador/a vacantes en la plantilla de laborales del Ayuntamiento de Bergara.

1. OBJETO DE LA CONVOCATORIA.

Constituye el objeto de estas bases regular la convocatoria para la provisión, mediante el sistema de concurso-oposición libre, de **11 plazas de limpiador/a**, vacantes en la plantilla de laborales del Ayuntamiento de Bergara. Se señalan a continuación las plazas, junto con su dedicación (es provisional se revisarán antes de que finalice la convocatoria) y el código correspondiente en la relación de puestos de trabajo que está aprobada por el ayuntamiento:

- **Sala Zabalotegi: Dedicación del 12%, con código de puesto 10.24.17.**
- **Centro escolar San Martín con escuela y vestuarios de Osintxu: (6 horas al día) dedicación del 72%, unificando los puestos que actualmente tienen los códigos 10.24.09 y 10.24.11.**
- **San Martín: Dedicación del 65% (5,5 horas al día), con código de puesto 10.24.10 (a partir de octubre).**
- **Agorrosin: 4 trabajadores/as, con una dedicación del 72% y 5,5 horas (por la noche); los puestos tienen los códigos 07.07.03, 07.07.04, 07.07.05 y 07.07.06.**
- **Mercado de Oxirondo, WC de la calle Irala y WC de la estación de BUS: 2 trabajadores/as al día con dedicación del 60%; los puestos tienen los códigos 10.24.14 y 10.24.15.**
- **Limpieza de las piscinas exteriores de Agorrosin: 2 trabajadores/as. Estos contratos son fijos-discontinuos, con una duración anual desde el 10 de junio hasta el 15 de septiembre, con una jornada laboral de 4 horas diarias. Los puestos tienen los códigos 07.07.08 y 07.07.09.**

Los puestos tienen asignado el perfil lingüístico 1, no preceptivo.

Dos de los puestos están reservados para personas con discapacidad: **Sus códigos son: 10.24.14 y 10.24.17.**

Las dedicaciones se adecuarán a las necesidades de los servicios, y podrán incrementarse para responder a otras necesidades municipales. El calendario laboral y el horario serán los fijados anualmente por el Ayuntamiento.

4 plazas son para la prestación de servicios de limpieza en el centro deportivo de Agorrosin, **estableciéndose el horario en función de las necesidades del servicio. En un principio**, y mientras el ayuntamiento no disponga lo contrario, tendrán horario nocturno, adecuándose siempre a las características del puesto y a sus necesidades específicas.

Con los aspirantes que, habiendo superado la fase de oposición, no han obtenido puesto, se creará una lista que podrá ser utilizada para cubrir necesidades de personal no permanente en puestos idénticos o similares.

Se señalan a continuación las funciones de las plazas que son objeto de la presente convocatoria, junto con otras especificaciones:

- Realizar la limpieza de los edificios que les correspondan a diario, de la instalación en sí misma, del mobiliario interior y de todos sus elementos, debiendo seguir en cada caso las órdenes de limpieza asignadas y los útiles facilitados para la labor.

- El personal de limpieza de Agorrosin en la semana de limpieza general disfrutará de algunos de los días de vacaciones que anualmente corresponden, una semana un grupo y la otra semana el otro grupo, a turnos.
- En el caso de las escuelas, en Semana Santa, vacaciones de Navidad y desde finales de agosto y a principio de septiembre, realizarán limpiezas generales de acuerdo con el calendario laboral que se les dará.
- En el caso del personal de limpieza de la zona exterior de Agorrosin, podrán cubrir los días de vacaciones, licencias o bajas del resto de limpiadores/as, adecuando en cada momento su dedicación a efectos de cotización.

2. REQUISITOS DE LAS PERSONAS ASPIRANTES.

Para tomar parte en el proceso selectivo, será necesario reunir los siguientes requisitos:

1. Las personas aspirantes deberán reunir los siguientes requisitos para su admisión y, en su caso, participación en el concurso:
 - a) Ostentar la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado Español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.
 - b) Así mismo podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.
Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en los párrafos anteriores residentes en el estado español. En caso de que resulten seleccionadas, y previamente a la firma del contrato, deberán acreditar que cuentan con autorización administrativa para ejercer la actividad objeto de dicho contrato.
 - c) Haber cumplido 16 años de edad.
 - d) Contar con certificado de escolaridad o titulación equivalente, o bien tener abonados los derechos para la obtención del título. En caso de titulaciones extranjeras, se deberá aportar el certificado de su homologación.
